

ASTEAZKENEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2024ko URTARRILAREN 17a. 08:30.

ASTEAZKENA (2024/01/17)

Zerua oso hodeitsu edo estalita egongo da; egunaren erdialdeko orduetan hodeiak gutxitu egingo dira eta gauan zerua tarteka hodeitsu geratuko da. Euri txikia egin dezake noizbehinka, batez ere egunaren bigarren partean eta barnealdean. Hego-osagaiko haize bizia ibiliko da, bolada gogorrekin eta oso gogor batzuekin; eguerdi inguruan hego-mendebaldetik finkatuko da eta arratsalde-gauean indartu egingo da, tarteka gogor ibiliko da, bolada oso gogorrekin, bereziki mendebaldeko haizeguneetan. Temperatura maximoak igo egingo dira: gutxi kostaldean eta nahikoa gainerako tokietan.

Temperaturak (°C)	
<i>Maximoa</i>	
Donostia	20
Bilbao	21
Gasteiz	15
Arrasate	19

OSTEGUNA (2024/01/18)

Zerua tarteka hodeitsu egongo da; eguerditik aurrera hodeiak ugaritu egingo dira iparraldetik hegoaldera eta zerua oso hodeitsu edo estalita geratuko da. Egunaren bigarren partean euri txikia egingo du, noizbehinka ertaina. Arratsaldean elur-kota jaitsi egingo da eta egunaren amaieran 1000-1200 m inguruan egongo da. Hego-mendebaldeko haize bizia ibiliko da, tarteka gogorra, bolada oso gogorrekin, bereziki mendebaldeko haizeguneetan; goizean ipar-osagaira aldatuko da eta indarra galduko du; baliteke kostaldean bolada gogorrekin edo oso gogorrekin izatea. Temperatura jaitsi egingo da: nahikoa edo nabarmen minimoak eta gutxi edo nahikoa maximoak; minimoak egunaren amaieran neurtuko dira.

Temperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	11	17
Bilbao	12	18
Gasteiz	6	13
Arrasate	8	15

OSTIRALA (2024/01/19)

Zerua oso hodeitsu edo estalita egongo da; gauean hodeiak gutxitu egingo dira eta zerua hodeitsu geratuko da. Prezipitazio txikia egingo du, barnealdeko zenbait lekutan ertaina, batez ere hegoaldean; gauean atertzera egingo du. Elur-kota egunean jaitsi egingo da eta 1000 m-tik behera egon daiteke. Ipar/ipar-ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogor batzuekin haizeguneetan. Temperatura nabarmen edo asko jaitsiko da. Mendi inguruetan eta Arabako zenbait lekutan izotz txikia egingo du.

LARUNBATA (2024/01/20)

Goizean lanbroa eta lainoa sortuko dira. Zerua hodei gutxirekin edo oskarbi egongo da, goizaldean tarte hodeitsuarekin eta egunaren amaieran goi-hodei batzuekin. Norabide aldakorreko haize ahul-bizia ibiliko da; arratsaldean hego-mendebaldetik finkatuko da. Temperatura minimoak nahikoa jaitsiko dira eta maximoak gutxi igoko dira. Izotz txikia egingo du barnealdean, bereziki Araban non zenbait lekutan handia egin dezakeen.

PRONÓSTICO ELABORADO EL MIÉRCOLES DÍA 17 DE ENERO DE 2024 A LAS 08:30

MIÉRCOLES (17/01/2024)

Cielo muy nuboso o cubierto; en las horas centrales disminución de la nubosidad, quedando por la noche intervalos nubosos. Posibles precipitaciones débiles y ocasionales, sobre todo durante la segunda mitad del día y en el interior. Viento moderado de componente sur, con rachas fuertes y algunas muy fuertes; fijándose en las horas centrales del suroeste e intensificándose por la tarde-noche, con intervalos fuertes y rachas muy fuertes, especialmente en zonas expuestas del oeste. Temperaturas máximas en ascenso: ligero en el litoral y moderado en el resto.

Temperaturas (°C)	
	<i>Máxima</i>
Donostia	20
Bilbao	21
Gasteiz	15
Arrasate	19

JUEVES (18/01/2024)

Intervalos nubosos; en las horas centrales aumento de la nubosidad de norte a sur, quedando cielo muy nuboso o cubierto. Durante la segunda mitad del día precipitaciones débiles, ocasionalmente moderadas. Por la tarde cota de nieve bajando hasta rondar al final del día 1000-1200 m. Viento moderado del suroeste, con intervalos fuertes y rachas muy fuertes, especialmente en zonas expuestas del oeste; durante la mañana irá girando a componente norte y perderá intensidad, con posibles rachas fuertes o muy fuertes en el litoral. Temperaturas en descenso: moderado a notable las mínimas y ligero a moderado las máximas; las mínimas se registrarán al final del día.

	Temperaturas (°C)	
	<i>Mínima</i>	<i>Máxima</i>
Donostia	11	17
Bilbao	12	18
Gasteiz	6	13
Arrasate	8	15

VIERNES (19/01/2024)

Cielo muy nuboso o cubierto; por la noche disminución de la nubosidad, quedando cielo nuboso. Precipitaciones débiles, localmente moderadas en el interior, sobre todo en el sur; remitiendo por la noche. La cota de nieve irá bajando y podría situarse por debajo de los 1000 m. Viento flojo a moderado del norte-nordeste, con algunas rachas fuertes en zonas expuestas. Temperaturas en notable o acusado descenso. Heladas débiles en zonas de montaña y en puntos de Álava.

SÁBADO (20/01/2024)

Brumas y nieblas matinales. Cielo poco nuboso o despejado, con intervalos nubosos de madrugada y algunas nubes altas al final del día. Viento flojo a moderado variable, fijándose por la tarde del suroeste. Temperaturas mínimas en moderado descenso y máximas en ligero ascenso. Heladas débiles en el interior, especialmente en Álava, donde podrían ser localmente moderadas.